



Kaixo berriro ere!

Seguraski ezagutzen duzu martxan jarri dugun proiektu "berri" hau. Era berean, badakizu ez dela guztiz berria. Zuzendaritzarako kudeaketa aholkularitzan esperientzia zabala duen profesional talde batek, ahalegin eta ilusioz betetako erronka honetan ematen duen aurrerapauso berri bat baizik.

Hilabetekari bat argitaratzeko ideia berreskuratu dugu, gure lagun eta bezeroei, formatu labur eta zuzena erabiliz, albiste interesgarrien berri emateko. Zure gustukoa izatea espero dugu.

Badakizu non gauden. Jar zaitetz gurekin harremanetan aldizkari honetako albisteen inguruan beste edozer jakin nahi izanez gero.

Jose Antonio Calvo Maguregi
Acorde Consulting-eko Zuzendaria

ALBI STE GARA

✍ APD Zona Norte erakundeak, gure proiektu berriaren harira, euren hiruhileko azken aldizkarian elkarrizketa bat argitaratu du. Interesatzen bazaizu, dokumentu honen behealdeari erantsitako loturan klik eginez irakurri ahal izango duzu.

✍ Azaroan Kalitatearen Europar Astea ospatuko da eta Acorde Consulting-ek hainbat ekitalditan parte hartuko du. Euskaliten behin-behineko agenda ikus dezakezu dokumentu honen amaieran agertzen den bigarren loturan sakatuz.

xertatu: ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOA ETE-etan

Garaiak aldatuz doaz eta enpresek bere ingurunearekiko agertzen duten implikazioa gero eta gehiago hartzen da kontutan. Horregatik, gero eta gehiago dira bere eragin soziala kudeatzeko beharra sentitzen duten erakundeak.

Bizkaiko Foru Aldundiak ETE-etan erantzukizun sozial korporatiboa kudeatzeko metodologia bat garatu du: Xertatu.adi. Halaber, erakundeetan tresna hau ezartzeko kualifikatuta dauden aholkularien homologazio prozesua burutu du.

Xertatu.adi tresnaren **ezarpenaren 80%-a diruz lagunduta dago**, beraz, urte bukaera baino lehen proiektuari ekiten dioten eta dirulaguntza azaroak 15a baino lehen eskatzen duten Bizkaiko ETE-ek, oso baldintza onuragarriak edukiko dituzte.

Bizkaiko 112 ETE-ek Xertatu.adi tresna ezarri dute euren erakundeetan. Acorde consulting-ek, aholkularitza homologatu gisa, ezarpen hau burutzen lagundu diezazuke, zure erakundearen Erantzukizun Sozial Korporatiboa lantzen dutenen artean kokatuz.

HURRENGO IKASTARO ETA JARDUNALDIAK

Prozesuen araberako kudeaketa: Azaroak 20, 27 eta abenduak 4 APD-n (Bilbo). Antolatzailea: Euskaliti.

EFQM eredia - Ebaluatzaileak urriak 19, azaroak 15, 22 eta 29 Errioxako Marketing Klubean. Antolatzailea: ADER.

Kalitatearen Europar Astea: hainbat ekitaldi (ikus beheko loturan).

+innova ACORDE: +INNOVA EKIMENEAN PARTE HARTZEKO AHOULKULARI HOMOLOGATUAK

Joan den irailak 25ean, Arabako Teknologia-parkean ospaturiko jardunaldi batean, ACORDE Consulting-ek ISEB-ek gidatutako Innova ekimenaren inguruko Innoshock sentsibilizazio tailerra zuzendu zuen.

Innova ekimenaren helburua euskal ETE-ek berrikuntzak ezartzeko duten ahalmena garatzea da. Horretarako, beharrezko baldintzak eskaintzen dizkie enpresei, berrikuntzak ezar ditzaten eta ekonomi testuinguru berri honetan lehiakorrak izan daitezten.

Ezinbestekoa da gure enpresek berrikuntzaren prozesu sistematikoa kudeaketan txertatzea eta berrikuntza proiektuak etengabe martxan egon daitezen baliabideak gauzatzea. Horrela, salbuespena baino, berrikuntza ohiko jarduerara izatea lortuko genuke.

O s l o - k o Eskuliburuaren hirugarren edizioa erreferentzia moduan hartuz gero, berrikuntzak zera esan nahi du: enpresaren barne jardunbidean produktu edo prozesu berri bat, funtsezko hobekuntzak jasan dituen prozesu bat, merkaturatze metodo berri bat edota antolaketa modu berri bat txertatzea.

Beraz, berrikuntzaren ikuspegia handiagotu beharra dago hurrengo lau alderdiak kontutan hartuta: produktu/zerbitzuak, prozesuak, merkatuak eta antolaketa.

Innova berrikusten eta ezagutza die gutxienez InnoBerrikuntzaren Agenda definitzen, garatzen eta laguntzeko metodologia bat, eta arlo horretan esperientzia handia duten aholkulari homologatuen laguntza eskaintzen sei pertsonaz osaturiko euskal ETE-ei.

ACORDE Consulting innova ekimenean parte hartzen ari da, eta aholkulari batzu homologatuta daude jadanik Innoshock tailerren bitartez proiektua sustatzeko eta ISEB-ek eskaintzen dituen dirulaguntzak eskatzen dituzten enpresei aholkularitza zerbitzua emateko.

Berrikuntzaren Agenda negozio motaren eta enpresaren berrikuntza profilarren inguruko hausnarketa baten bidez garatzen da, berrikuntza ildoak eta proiektu zehatzak definituz.

Ekimen honek bi motatako proiektuak sustatzen ditu: trebakuntza eta berrikuntza proiektuak. Trebakuntza proiektuak erakundearen berrikuntzaren kultura zabaltzera zuzenduta daude, eduki teoriko— praktikoak dituzte eta iraupen laburrekoak dira. Berrikuntza proiektuek aldiz eragin sakonagoa dute enpresan eta hortaz, burutzeko epea y aurrekontua handiagoak dira.

Innovak Berrikuntzaren Agenda definitzeko zein Agendaren jarraipena egiteko aholkulariaren lanaren 100% diruz laguntzen du. Halaber, Agendako proiektuen garapenean jasotako aholkularitzaren 75% diruz laguntzen da.